

Misioa:

GOIMEKen helburua da doitasun eta kalitate altua eskatzen duten piezen mekanizazio lanetarako soluzio osoak eskaintzen dituen erreferenziazko kooperatiba izaten jarraitzea.

Hazkunde jasagarri eta errentagarria lortzeko gure bezeroen gogobetetzea bilatzen dugu, DANOBATGROUP eta GOIMEKeko Kooperatibetako langileen itxaropenak erantzunez.

Helburu hori nortasun kooperatiboa duten pertsonekin lortuko dugu; GOIMEK, DANOBATGROUP eta MONDRAGONeko garapenarekin konpromisoa duten pertsonekin, Euskal Herrian aberastasuna eta lana modu iraunkor eta jarraituan sortzeko helburua partekatzen duten pertsonekin, alegia.

Ikuspegia:

Hornitzaile estrategikoa izatea DANOBATGROUPeko piezen mekanizazio-soluzioetarako, eta lehiakortasuna hobetzeko proiektu partekatuak garatzea. Era berean, beste bezero eta sektore batzuetarako lan egitea eta errentagarritasun maila egokiak lortzea.

Horretarako, proiektu sozioenpresarial paregabea finkatuko dugu; DANOBATGROUP eta MONDRAGONeko balioekin koherentea izango den eta barne-eraginkortasun altuena lortuko duen antolaketa-eredua izango duen proiektua.

Valores:**Konpromisoa**

Gure enpresako langile eta bazkideekin inplikatzeko ahalakoa.

**Barne zein kanpo bezeroekiko orientazioa:**

Bezeroaren beharrak ezagututa soluzio onenak eman ditzakegulako

**Berrikuntza, aldaketara irekita**

Mundua etengabe bilakatzen ari da, eta aldaketarako irekita eta prestatuta

**Konfiantza**

Gure erabakiak betetzen ditugulako eta horiekiko koherenteak garelako.

Talde-lana eta lankidetzeta

Jasangarritasunaren oinarria ezagutza eta aberastasuna partekatzea delako

Jarrera baikorra

Ilusioa eta gehiago izateko espiritua dugulako, guztiaren alde ona ikusiz.

Gure misioa betetzeko, oso garrantzitsuak dira gure langile eta bazkideen Segurtasun eta Osasuna, gure zerbitzuen Kalitatea eta Ingurumena babestea. Beraz, oinarrizkoa da beheko helburuak (konpromisoak) lortzea ahalbidetuko duen Segurtasun, Kalitate eta Ingurumeneko Gestio Sistema osoa garatzea eta abian jartzea:

- Gure bezeroen espektatibak identifikatzea.
- Gure bazkide eta langileen garapen profesional eta pertsonalean aktiboki laguntzea.
- Pertsonen segurtasuna eta osasuna babestu eta hobetzea lan baldintza seguruak eta osasuntsuak eskainita, osasunean eragin ditzaketen kalteak ekiditeko arriskuak ezabatuta eta murriztuta.
 - Langileak laneko segurtasunaren eta osasunaren kudeaketaren partaide egitea eta gai honen inguruan galdetzea.
 - Kutsadura saihestea eta ingurumena babestea eta hobetzea, berotegi-efektua sortzen duten gasen isurketa gutxitzeko neurriak garatuta eta baliabide naturalak aurreztuta.
 - Ekintza guztiak gure enpresaren jarduerari dagozkion eta indarrean dauden legearen eta barne araudiaren arabera, eta erakundeak onesten dituen beste baldintzen arabera garatuko dira.

Konpromiso hauek betetzeak eskatzen duen ahalegina gure egiten dugu etengabeko hobekuntzatik, eta horretarako guri dagozkigun beharrezko giza baliabideak, baliabide ekonomiko eta materialak eskainiko ditugu etengabeko hobekuntzako objektiboak eta gure gain hartutako prozesuak betetzeko.



Siñadura: Aitor Txurruka
Zuzendari gerentea